

Irañetako eta Arakilgo mintzoaren gurpilean

IÑAKI CAMINO*

AURKEZPENA

1 Hizkuntza-jauzi bortitzez edo isoglosen bilgune gotorrez jarduteaz landa, geografia-eremu batera iristen diren hizkuntzazko grabitazio-indarrak, jatorri, eragin edo joera desberdinekoak direnean, halaxe aitortu beharra dagoela deritzogu eta hori bera da, hain zuzen ere, Arakilen, Irañetan eta Sakana erdialdean gertatzen dena, hori da aldizkari honetako 2005eko gure “Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna” artikuluan adierazi nahi genuena. Arakil adibidetzat hartzen baldin badugu, aise ikusiko dugu historian zehar joera baten baino gehiagoren inguruan pibotatu duen mintzoa dela: peko alderditik hego-nafarreraren eksklusiboak diren ezaugarri batzuk bildu ditu; Arakilgo beste ezaugarri batzuk Euskal Herriko erdiguneko berrikuntza hedatuak dira; baditu gero Nafarroa Garaiko erdiguneko ezaugarri berri batzuk ere, Gulibarren, Txulapainen edo Atetzen eta ziur aski Itzan aurki ditzakegunak; eta ezker joz gero, Arakilgo mendebaletik Irañeta alderdira jotzen baldin badugu, Sakana erdialdearekiko hizkuntza-lotura ere badela sumatuko dugu.

2005 urteko gure artikuluz gogoeta batzuk egin ditu Jose Luis Erdoziak *Fontes* aldizkari honexen 2006ko lehen zenbaki honetan eta guk, berebat, ohar argigarriok egin nahi izan ditugu. Lehen-lehenik eskerrak eman behar zaizkio Erdoziari, eztabaida hauek, orenen buruan, dialektologiaren bazterrak garbitzeko eta zoko ilunak argitzeko balio baitezakete. Ondoko lerroetan eginahala eginen dugu Erdoziaren ikuspegia eta gurea, bata bestetik zertan urruntzen diren adierazteko; gaia kokatu eta zertxobait argitu ondoan, gure iritzia argudiatzeko Sakanako hizkuntza-datuei nola so egiten diegun erakusten saiatuko gara.

* Euskal Herriko Unibertsitatea.

Erdoziak Irañetako eta Arakilgo mintzoak “erabat antzekoak izango genituzke”-ela dio (2005: 75), ez duela “zalantzarik esateko Uhar-te Arakil eta Irañeta ... erabat erlazionaturik daudela [Arakilekin], bai geografia mailan nola hizkuntzarenean” (2006). Eta Erdozia bera da, mintzoari dagokionez, Uhar-te eta Irañeta Sakana erdialdearen barrenean daudela dioena (2006). Garbi dago hizkuntzari dagokionez Erdoziak bi eremu dakuskiela Sakanan: alde batetik Burunda, eta bestetik, Sakana erdialdea eta Arakil.

Erdoziak dioenez, bere lanen helburua Sakanako egungo euskara ez estandarizatuaren egoera zertan den jasotzea eta honekin batera, horretarako gai den neurrian, ondorio dialektologikoak ateratzea da. Gogorarazi behar da, ordea, iraganeko berri ere badakarrela, eta ugari gainera: esate batera, Irañetako euskaraz diharduen bere artikuluan, XIX. mendeko Juan Migel Gaste-siren idazkietako erak ausarki baliatzen ditu (2004: 506-510), baita 1978ko eta 1985eko *EDEL*-ko ahozko lekukotasunak ere, baina aldiz, 1965-1967 bitarteko Ana Maria Etxaideren Murginduetako emaitza lexikoak ez ditu erabili.

Egin zituen saioetan, Irañetako euskara Sakana erdialdeko mintzoan bete-bete sartzeko delatzen adierazi zuen Erdoziak alde batetik (2005: 75; ikus 2004: 513 ere), eta bestetik, Irañetako eta Arakilgo euskara erabat antzekoak zirela iradoki zuen (2005: 75); zenbaki honetan argitaratzen den bere saioan, ordea, Irañetako euskara Sakana erdialdekoan “bete-bete sartzeko delatzen adieraztea baino, “ia bete-bete sartzeko delatzen esatea hobe zuela onesten du Etxarri-Aranazko ikertzaileak (2006), baina ez du horregatik orain arteko ikuspegi pansakanarra baztertzen.

2. Idatzi genuen artikulua helburua, Irañetako eta Arakilgo euskarak eskuinaldera zein lotura hertsia duten adieraztea zen, Erdoziak 2004ko eta 2005eko saioetan egin ez zuena, hain zuzen ere. Gure artikuluan mendi gainak ez ziren aipatu, Erdoziak iradokitzen duen bezala, gogoeta egiteko edo zizak biltzeko gune egokiak diren aldetik, ibar baten egitura orografikoa eta ibar horren ondoko eremu geografikoa zein den erakusten duten aldetik baizik, norberaren begirada goratzeari eta ikuspegia zabaltzeari dagokionez; izan ere, honek guztiak lotura zuzena du ibar edo eskualde bateko jendeen gizar-te-harremanekin eta ekonomia-irtenbideekin, lanaren hurbiltasuna edo urruntasuna garrantzizkoa denean bereziki. Arazko, Putterriko, Beriaingo, Ma(d)alengo malkorreko edo Gazteluko gainetarik argi ageri da, XXXIVgarren “iter”-ak ez duela balio Burdigalatik Asturica Augustara joateko bakarrik, Astorgatik Bordelera joateko ere balio duela, edo beste hitz batzuen bitartez esanik, Irañetako euskarak behar duela izan lotura ekialdera, Arakil, Gulibar, Itza, Txulapain, Atetz edo Odieta aldera ere.

2004, 2005 eta 2006ko Erdoziaren lanetan Irañetako eta Arakilgo euskarak Sakana erdialdekoarekin zein lotura hertsia duen behin eta berriz defendatzen da; lotura horren froga, Sakana guztian berrogeita hamazazpi ezaugarri alderatu ondoan ateratzen diren emaitzetan aurkitu duela diosku Erdoziak. Honen aitzinean bi adierazpen egin behar ditugu: ez da atzendu behar, batetik, guk ez dugula lotura hori ukatu, gure artikuluan Irañetako euskarak eta Sakana erdialdekoak lotura sakona dutela aitortzen da, bateko eta beste-ko mintzoa ongi uztarturik daudela onesten da (2005: 266); elkarren ondoan dauden herrietako hizkerek, nola ez dute, bada, loturarik izanen? Hartara, 2005ean guk garbi aitortua Erdoziak aldizkariaren zenbaki honetan bigarren aldiz defendatzea ez zen hain gauza beharra, baina egoki iritzi dio hala egite-

ari eta gauza jakina da, auziak eztabaida eragin ohi duela, eta eztabaidak iritzia ekarri ohi duela gibeletik.

3. Gure bigarren adierazpena metodologiari dagokio; ezagun du Erdoziak Sakanako ezaugarriak aztertzean, gehienik Burundari begira jokatu duela; alderdi horretan sortzen den isoglosen egitura trinkoak eragin du, Burundakoa ez den Sakanako euskara oro Erdoziak batasunean ikustea, ikertzaile honek Burundakoa ez den Sakanako ezaugarri oro bateratzea; Burundan sortzen den etenean eta bertako hizkuntza-desberdintasunetan horrenbeste fokalizatu izanak, Erdoziak erakusten digun Sakanako hizkuntzaren errealitatean zain-behartsu hori gertatzea eragin du, distortsio hori agertzea.

Sakanako ikertzaileak honela aitortzen du: “Sakana erdialdea eta Irañeta bertako hizkerak aztertzerakoan baliatu ditugun ezaugarri berberak erabili ditugu Burundakoarekin ere”. Zerengatik ez ditu Arakilgo hainbat ezaugarri erabili, eskuin Nafarroan jarraipena dutenak, Burundako mintzoa aztertzean? Arakil baino, “Sakanago” ote da Burunda Erdoziaren iritzian? Arakilgo ezaugarri horiek ere aintzat hartu balitu, ez zitzaion horrenbesteko batasunik edo “nolabaiteko eskusibitaterik” aterako Sakanako ezaugarrien konbinazioaren emaitzetan. Izan ere, familia, espeziea, arraza edo bestelako taldeak bereizteko jarduera taxonomiko honetan, neurri edo izaera desberdina duten errealitateak izartzeko eta sailkatzeko, ñabardura handiko tresnak eta metroak erabili behar direlakoan gaude.

4. Zernahi ere den, guk beste alderdi batetik ekin genion gai honi, Arakil alderditik, ez horrenbeste Sakana erdialdetik; Sakana erdialdeko euskaraz airtzeko ongi dakigu Erdozia bera dela pertsonarik egokiena. Halaz guztiz ere, badira Sakana erdialdean eta Irañetan ageri diren ezaugarri franko, nafarreraren barreneko ikuspegi dialektologikotik batere berezitasunik ez dutenak, geografia-hedadura arras zabala dutelako: ezaugarrioi, duten baino frogatzeko gaitasun handiagoa aitortu die Erdoziak.

Ondorioak ateratzeko baliatu dituen Sakanako berrogeita hamazazpi ezaugarri horietarik, berrogeita hiru berdinak omen dira Irañetan eta Sakana erdialdean eta beraz, Irañetako euskara ez da haren ustez Sakana erdialdeko euskararen atal bat baizik. Erdoziaren ondorioetan ez omen dago subjektibotasunik, ezaugarrien %75 berdinak izateak ez du Erdoziaren ustez zalan-tzarako alderdirik uzten. Halarik ere, guhauri zalantza, ezaugarrien balio kualitatibotik datorkigu. Gaude, egin duen lanean, metodologiaren alderditik Erdoziak ez duela atal guztietan berdina jokatu, egin duela aitortzen duenaren eta egin duenaren artean badela inkoherezia zerbait.

Lexikoa aztertzeke honako jokabidea hartu duela aitortzen digu (2006):

Guk Irañetako hizkera aztertzerakoan hirurehun burutzapen baino gehiago erabili genituen esku artean, baina soilik berrogeita hamabost nabarmenenak islatu genituen “Sakanerak” artikuluan, gainerakoak Sakanan bertan eta kanpoan nahiko komunak zirelako baztertu genituelarik.

Lexikoa aztertzeke jokabide hori zinez hartu ote duen ez gara sartuko, ez da hori oraingo gure auzia, interesatzen zaiguna dakarren ikuspegia baita: esaten zaigunez, lexikoa aztertzean zinez Sakanako bereizgarri diren ezaugarriei eman zaie froga-balioa, ez Sakanaz landa ere erabiltzen direnei edo komunagoak direnei, Sakanako hizkera bereizgarri egiten duten ezaugarriak aintzat hartu omen dira azterketa lexikoan. Gu bat gatzoz ikuspegi

honekin, baina ez dakigu zerengatik ez duen izpiritu hori bera baliatu edo proposatu fonikoak eta morfosintaktikoak diren ezaugarriak aztertzeke. Fonetika-fonologia, izenaren eta aditzaren morfologia eta sintaxia aztertzeke baliatu dituen berrogeita hamazazpi ezaugarrien artean, bitan baizik ez doa Irañetako euskara Sakana erdialdekoarekin batera Arakilgo mintzotik bereizirik edo saihesturik. Beste bi ezaugarritan, Sakanako erdialdea, Irañeta eta Arakil batera doaz eskuineko ibarretarik bereiz. Berrogeita hamazazpiren artean lau ezaugarrik ez dute %75 egiten, eta lau horietarik bakarra da Sakanako eskusiboa, gainera; beste hirurek lotura dute hego-nafarrerarekin. Gakoa, beraz, ez datza Erdoziak darabiltzan ezaugarriak “banan-banan” harturik Sakanako eskusiboak ez izatean bakarrik, baizik eta zenbaki honetako iruzkinean dioskuna ere (2006) ez dela berak dioen bezala:

...multzoan hartzen baditugu bai erakusten digute nolabaiteko eskusibitatea Sakana erdialdeko eta Arakil haranaren mendebaldean dauden Irañeta eta Uharte Arakilgo ezaugarriek. Gainera, lehenago aipatu ditugun grabaketa eta testuetan (Ihabarkoak, Egiarretakoak, Irañetakoak eta Urritzolakoak) agertzen diren ezaugarriek ez dute herri horietako hizkera Sakana erdialdekotik aldentzen, ezta gutxiago ere. Eta ezaugarri multzo honen arabera atera ditugu guk ondorio apal hauek.

Guk ez dakusagu garbi Sakanako ezaugarri horien guztien konbinazioaren “nolabaiteko eskusibitate” hori eta erantsiko genuke, 2005eko gure artikuluan aipatu genituen Irañetako eta Arakilgo hainbat eta hainbat ezaugarri garrantzizko eta froga-emaile, Sakana erdialdean erabiltzen ez direnak eta Irañetako eta Arakilgo mintzoa ekialdera beste ibar batzuetako euskararekin lotzen dutenak, Erdoziaren lanean atzendu direlako atera direla atera diren ondorioak: ez da egia ezaugarri horiek Arakilgo mintzoa Sakana erdialdekotik aldentzen ez dutenik.

Sakana erdialdean oro har erabiltzen ez diren hamabost ezaugarri, Irañetan eta Arakilen nahiz Nafarroa Garaiko erdiguneko edo ekialdeko ibar gehiagotan ageri dira; beste lau ezaugarritan, Sakana erdialdean eta Arakilen hizkuntza-formaz egiten den erabileraren maiztasuna ez da berdina; beste ezaugarri frankotan, Sakana erdialdeko espezifikoa den berezitasun berri edo zahar bat ez da Irañetako eta Arakilgo euskararen ageri, eta uler daitekeenez, ezta Nafarroa Garaiko erdiguneragoko beste ibarretan ere. Sakana erdialdeko, Irañetako eta Arakilgo ezaugarrien zerrenda eta zehaztasun zenbait saio-txo honen bigarren atalean ikusiko ditugu.

5. Erdoziaren tesia egia izatera, egon beharko lukete ezaugarri batzuk, Sakana erdialdean erabiltzen direnak, Irañetan eta Arakilen ere badirenak, baina bertatik kanpo ageri ez direnak, eta guk ez dugu baldintza hauek asetzen dituen tasun bat bera ere aurkitu: izan ere, Sakana ez ote da, bada, iragbide bat? Sakana ez da Erronkari, gero!

Honelakoxe ezaugarrien balizko sorta ugari batek inguratuko luke espezifikoki Irañetako edo Arakilgo euskara Sakana erdialdekora, edo besterik gabe, Sakanara, sorta horrexek bermatuko luke Erdoziaren ikuspegi pansakanarra, ez Erdoziak froga-balioa ematen dien beste hogeita hamabi ezaugarrik, horiek Nafarroan orokorrak direlako, Sakanako espezifikoak ez direlako eta Sakana erdialdean bezala, Arakilen, Gulibarren, Txulapainen, Atetzen edo Ultzaman ere, euskaraz mintzatzen etxean ikasi zuten jende nafarrek, hogeita

hamabi ezaugarri horietarik gehienak erabiltzen dituztelako, edo orain artean bederen erabili izan dituztelako.

Ezaugarrien konbinazio berezi horrek Sakanako hizkuntza-espezifikotasuna dakarrela dio Erdoziak, baina gure ustean, hogeita hamabi ezaugarri horiek Sakanarekin identifikazio berezirik ez dute; espezifikotasuna Sakanakoak baizik ez diren ezaugarriek dakarte eta horiek partaide diren konbinazioetan gertatzen da hori; konbinazio berezi eta eskusibo hori ez da Uhartan, Irañetan edo Arakilen gertatzen, Sakana erdialdean baizik. Burundan ere gertatzen da beste bat, eta neurri handiagoan beharbada, inon ez bezalako konbinazio berezi eta eskusiboa gertatzen da Burundan (Zuazo 1994).

Hogeita hamabi ezaugarri pansakanar horiek ez dute Uharteko, Irañetako edo Arakilgo mintzoa Sakana erdialdekoarekin bateratzen, ezaugarri horiek Irañetako euskara, eta Arakilgoa, eta baita Sakana erdialdekoa ere, jakina, Nafarroako euskara berezi horretan ongi kokatzen dute, baina besterik ez.

Sakana erdialdean eta Arakilen erabiltzen diren hogeita hamabi ezaugarrioi dagokienez, pentsatu behar ote dugu, Ultzaman hogeita zortzi ageri direlako (% 87,5), Erdoziaren logikari jarraikiz, Ultzamako euskara ere “sakamera” dela, ala Sakanakoa “ultzamera”? Gure ustean, Erdoziak Irañetako eta Arakilgo euskarari Sakanatik baizik ez die begiratu, Sakana erdialdeko euskara partaide den sail bereko atal bat gehiago direlako konbentzimendu pertsonal eta subjektibotik, Sakanako euskarak Arakilgoaren bitartez erdiguneko Nafarroa Garaiko beste ibar batzuekin *continuum* izaera duela atzendurik; gure ustez, Burundako ezaugarri berezi eta ugarietan fokalizatu izanak lausotu du Erdoziak Sakanako euskaraz duen ikuspegia.

6. Gu bat gatoz Erdoziarekin, ezaugarriak banaka harturik eskusiboak ez izateak ez duela adierazten mintzo batek nortasunik ez duenik, hori defendatzen aritu gara hondarreko urteotako gure lanetan (cf. Camino 2004), baina ezaugarri ez eskusiboen konbinazio eskusiboaren ideia ez da ongi ezkontzen Sakanako errealitatearekin. Har dezagun adibide egokiago bat, jo dezagun Aezkoa alderdira. Bertako mintzoak hego-nafarreraren funtsezko ezaugarriak biltzen ditu, baina horrezaz landa, baditu Pirinioetakoak baizik ez diren berrikuntza guti batzuk, Erronkarin eta Zaraitzun han eta hemen ageri direnak. Garrantzizkoagoak dira oraino, Ipar Euskal Herritik eta bereziki Nafarroa Beheretik aetzek berek Aezkoara eramán dituzten berrikuntza batzuk. Eta bestalde, Nafarroa Garaiko erdigunean gertatu diren berrikuntza batzuk Aezkoaraino iritsi ez izanak ere, berezia eta gordetzaila bihurtzen du bertako mintzoa. Guk ez dugu ia Aezkoako bereko berrikuntza espezifikorik aurkitu, eta aurkitu ditugunak ez dira ibar guztikoak, herri bakar batekoak baizik.

Mintzo baten baitara lau joeraren konbinazio berezi bat bildu izanak eta ibarreko herri guztietako mintzora bildu izanak erakusten digu, Aezkoako euskarak ezaugarrien konbinazio arras eskusiboa eta berezia duela, banaka harturik ezaugarriak eskusiboak ez badira ere. Beharbada horregatik guztia-gatik, esplizituki formulatzeko gai izan ez bazen ere, inplizituki edo intuitiboki Azkuek “aezkerá” mintzo izena sortu zuen Aezkoako euskararentzat. Begien bistan dagoen gauza da Aezkoako adibideak ez duela Sakanako kasuarekin inolako antzik, Sakanako euskara ez delako batere homogenea eta Sakanako konbinazio eskusiboak bat baino gehiago direlako: Burundakoa, Sakana er-

dialdekoa (eta honen barrenean Ergoienekoa ere berezia da) eta Arakilgoa. Baidira gero zubi hizkerak diruditenak ere, Bakaikukoa, Irañetakoa (Uharterekin batera agian?).

7. Soka honek, ustegabekoan, ibar baten edo administrazio barruti baten izenean oinarritutako mintzo-izenen gaira ekarri gaitu, eta eztabaida hau ez da atzo goizekoa Euskal Dialektologian, Bonaparte printzearen garaian ere, izenak bilatzeko honelakoxe auziak izaten baitziren. “Sakanerak” izena defendatzen du Erdoziak bere lanean eta guk argitu nahi dugu zerengatik iruditzen zaigun desegokia: dialektologiaz mintzatzen garenean, dialektuez edo hizkuntzaz dihardugu funtsean, ez administrazio barrutiez; artean, “-era” atzizki hori, hizkerak, azpieuskalkiak edo euskalkiak adierazteko erabili izan da gure artean hizkuntza-ikasketetan, edo hala beharko zukeen izan bederen; hizkuntza-izaera edo hizkuntza-arrazoia duten entitateak izendatzeko balio beharko luke, batasun maila zenbait duten edota berezitasun zenbait dituzten mintzoei izena emateko, mintzo horiek zenbat ibarretara edo zein ibarretara hedatzen diren garrantzirik gabeko kontua delarik. Ikusi da, gainera, Atetzen “ultzamera” mintzatzen dela edo Arabako Azkoagan “bizkaiera” bera egiten dela esatea, ez dela litekeen jokabiderik zuzenena.

Administrazio baten edo ibar baten barrenera biltzen diren herrietako mintzo guztiak “-era”-ren bidez izendatzea ez da egokia, hizkera horien artean desberdintasun handia baldin badago. Ez dugu uste, gainera, “-era” atzizkia pluralean jokaturik “-erak” erabiltzeak arazoa arintzen duenik, ez gaitu hornitzen falta genuen edo ezinbestean behar genuen deusez. Oraintsuko lan batean Amaia Apalauza Olló doktoregaiak erakutsi du (2006), alde batetik Goldaratz Larraun aldera eta bestetik Muskitz Atetz-Ultzama aldera, Imozko mintzo orokorretik hizkuntza-ezaugarri ugaritan saihesten direla; itxaron genezakeenez, Apalauzaren lanean ez da ageri “imotzera” edo “imotzerak” izenik.

Eman dezagun Erdoziaren lanean “sakanerak” izenaren baitara ekarri den Burundako euskara, Patxi Salaberri Zaratiegik dioen bezala, bi Ameskoetako, Lanako eta Arabako ekialdeko hizkera galduekin loturik dagoela edo zegoela (1998: 87), edo hurbilenik loturik zirenak Ameskoabarrengoa eta Burundakoa direla (2004: 552). Eman dezagun bestetik, guk uste dugunez, Irañetako eta bereziki Arakilgo euskara, Gulibar, Itza, Txulapain edo Atezko euskarari anitz hurbiltzen zaiola. Hartara, Txulapaindik Ameskoabarreneraino doazen ibarretako mintzo edo hizkera guztiak “sakanerak” lirarteke: ez luke kanorerik.

Aldi berean, *continuum* nahiz trantsizio dinamika lauso eta konplexuak, biak batera ageri ditu Sakanako euskarak: Ergoieneko euskararen kasua zinez nabarmena da. Guk uste, mintzoak sailkatzeari dagokionez “sakanerak” izena erabiltzeak ez dakarren onik; hizkeren ezaugarriei eta ñabardurei dagokienez, egoikiagoak dakuskigu guk “Burundako euskara”, “Sakana erdialdeko euskara” eta “Arakilgo euskara” izenak. Jabetzen gara izen hauek abstrakzio maila bat dakarkiotela hizkuntza-errealitateari, Burundan ez dela gauza bera Altsasu eta Bakaiku, Sakana erdialdean ez dela gauza bera Lizarraga eta Lakuntza, Arakilen ez dela gauza bera Irañeta eta Urritzola, baina ezin menturatu gara zernahi taldekatzeri ñabarduren eta berexitasunen atxakiak ezarri ohi dizkion atomismo tipofoboaren mutur-muturreko jarreretan bertan goxo kokatzera, jokabide horrek ez lekarke aitzinamendurik Euskal Dialektologiaren alorrera.

Ziorditik Aizkorberaino edo Errotzeraino herri batzuetan bortitzagoak eta beste batzuetan mailakatuagoak diren aldaketak ageri dituen Sakanako hizkuntza-eremu honetan, ezin ase gaitzake “sakanerak” izenak, sobera orokorra baita. Erdibide horretan, errealitatearen izaera irudikatzen guti goiti beheiti asmatzen duen eta egokiagoa den hiruko banaketa nahiago dugu guk oraingo, garbi utzirik, artikuluan aitortu genuen bezala (2005: 274), zinezko etena Burundatik Sakana erdialdeko euskarara dagoela, Sakana erdialdeko Arakilgora dagoena ez dela horren bortitza. Guk uste, etorkizuneko azterketek garbixeago utz dezaketen auzi hau; Ergoieneko euskararen gainean gogoeta sakonxeagoetan murgiltzea ere ez litzateke denbora alferrik galtzea.

Hurranen lerroetan, “sakanerak” izena justifikatzeko Erdoziak baliatu dituen ezaugarriei nola so egiten diegun adieraziko dugu.

DATUEN AZTERKETA

1. Lehenik Erdoziaren ikuspegia laguntzen duten ezaugarriak zerrendatuko ditugu; Irañetako eta Sakana erdialdeko mintzoak lotze aldetik baldintzarik hertsiena aseko luketen ezaugarriek, Irañetako mintzoan beharko lukete egon eta Sakana erdialdeko espezifikokoak izan, eta Arakilen ezezagunak izan; Gulibartik eskuin dauden ibarretan ez agertzea ere baldintza litzateke; hone-lako ezaugarri bakarra aurkitu dugu guk bederen: 1) Irañetako euskararen egun ez dago afrikaziorik *ez + z-* lotzean: *ezen* ‘ez zen’, *ezakiken* ‘ez zekiaan’. XX. mende hasierako *Erizkizundi*-ak *etzen* afrikatua dakar: Iraizozko Polikarpo datu-biltzaileak ez zuen inkestak zekarren “ezzen” erantzuna azpimarratu; Erronkariko, Burundako eta Sakana erdialdeko berezia den egoera hau Arakilgo Ihabarrera hurranduz gero aldatzen hasia da: *ez zuténian*, baina *étzen* ‘ez zen’. 2) Ez da egia moduzko adizlagunak eratzeko *-(ka)kan* atzizkiak Sakana bateratzen duenik. Berrikuntza hau Burundan, Sakana erdialdean eta Irañetan erabiltzen da eta baita eskuin Imotzen eta Basaburuan ere, bederen; idazki zaharretan Gesalaten, Goñerrian eta Oltzan ageri da, baina Olloibarren ez. Arakil alderdira jorik, Ihabarren edo bertatik eskuin ez da ageri, ezta ekialdera Gulibarren, Txulapainen, Odietan edo Ezkabarten ere¹.

2. Erdoziaren ikuspegi pansakanarra lagunduko lukete, Sakana erdialdean, Irañetan eta Arakilen erabiltzen diren ezaugarriek; hauen eksklusibotasuna baldintza *sine qua non* litzateke, hau da, Gulibarren ez erabiltzea edo bertatik eskuin ezezagunak izatea ase beharreko baldintza litzateke. Ez dugu ezaugarri eksklusiborik aurkitu, baina bai baldintzok betetzen dituzten bi tasan semiesklusibo. 1) Ez zen ohikoa Gulibarren, Txulapainen edo bertatik eskuin, izenetan gertatzen den *eu > au* diptongo irekiera; ez dirudi bilakabide hori Arakilgo Urritzolan indarrean izan denik ere: *éulié*, *éuriye* (Artola 1992: 192); aldiz, Sakana erdialdean bezala, Irañetan eta Arakilgo Murgin-duetan, Ihabarren eta Egiarretan irekitzen da, Arakilek mendialdean gibeletik dituen ibarretan, hego-nafarrera egiten zen Iruñerrian eta ekialderago bezala. 2) Hedadura handikoa da *-ki-* erroa “izan” aditzaren Nor-Nori sailaren

¹ Txulapaingo Beorburun *-ka* da nagusi, baina badirudi salbuespen bat ageri dela; Koldo Artolaren datuetan bada ongi entzuten ez bide den *bueltaka(n)* bat (1992: 216). Ez dakigu ziurtasunez Txulapainen *-kan* erabiltzen ote zen.

iraganeko formetan Nafarroa Garaiko erdigunean; Sakana guztiko ezaugarri espezifikoa da, ordea, oraineko formetan ere *-ki-* erro hori agertzea *dakit* ‘zait’ bezalakoetan: egun Irañetan hala da, Arakilen hala izan da eta iragan mendean Irurtzunen ere hala zen, hondarreko herri honetan *zaide*-rekin lehian bazegoen ere. Ondoko Gulibarren *zaide* eta *zaio* sailekoak bildu ditu Koldo Artolak; Imozko Etxalekun, ordea, *dakio* eta *zayo*, bi sailak dakartza Irizarrek (1981 II: 71), nahiz Orreaga Ibarrek egun Etxalekun *zaio* entzuten dela dioen (1995: 423-4). Badirudi hego-nafarreraz ere orainean *-ki-* erabiltzen zela, Gesalatz, Itzarbeibar eta Goñerriko XVIII. mendeko idazkietan *daquio*, *daquio* edo *daquizquizu* erako adizkiak ageri direnez.

3. Ageri denez, Erdoziaren tesiarekin ongi uztartzen diren lau ezaugarrietarik bakarra da eskusiboa Erronkarin ere ageri zen, egia esan, eta eskusiboa den hori ez da Sakana guztiko gertakaria.

4. Erdoziak hala badio ere, jarraian dakartzagun hogeita hamabi ezaugarriek ez dute Irañetako eta Arakilgo euskara Sakana erdialdekora inguratzen; batzuetan, Burundakotik aldentzen dute, hori bai, baina besterik gabe; aintzat har bedi ezaugarri hauek Hego Euskal Herrian edota Nafarroa Garaian hedadura zabala dutela, mendebaleko hizkeren eraginetik saihesten diren eremuetan bereziki. Hona zein diren tasunok: 1) *-a + a > a* soiltzea; Burunda da horretan berezia mendebaleko *-a + a > ia* egiten duelako. 2) *i* eta *u* ondoko *a* palatalizatzea. 3) Burundan ez bezala, *ei > ai* irekiera sistematiko ki ez gertatzea. 4) *baztar* ‘bazter’ edo *asarre* ‘haserre’ adibideetan dardarkari aitzineko *e* jaistea. 5) Hitzen atala den berezko *-a* galtzea. 6) Aferesiak eta sinkopak. 7) Kontsonante ozenen palatalizazio edo bustidura automatikoa. 8) Burundako mintzoaren alderantziz, *beño* ‘baino’, *guaño* ‘oraino’, *giñen* & *giñan* ‘ginen’ adibideetan *nd* kontsonante talderik ez izatea. 9) Inoiz *n* aitzineko *o* bokala *u* bilakatzea. 10) Erdal maileguetan *-on* bukaera ibiltzea. 11) Edu-te genitiboko pluraleko morfema *-en* izatea. 12) Datibo pluraleko morfema *-ei* izatea. 13) Kasu instrumentalean *-s* ibiltzea. 14) Destinatioan eta prolatiboan *-tako* morfema erabiltzea. 15) Inesiboan eta leku-genitiboan bizidunen *beitten* & *beitteko* morfemak erabiltzea. 16) Adlatibo bukatuzkoaren morfeman *nd* talderik ez izatea eta *-(r)año* ibiltzea. 17) Moduzko aditzondoak sortzeko *-ki* atzizkia erabiltzea. 18) “eduki” aditzaren forma trinkoetako pluralgilea *-zki* ez, *-z-* izatea. 19) Partizipioari eransten zaizkion *-ta* eta *-rik* modu atzizkiak izatea. 20) Partizipioaren atzizkia *-au* ez, *-atu* izatea. 21) Nor Nork aditz sailaren iraganean *-i-* egotea eta ez *-e-*: *giñu(b)en* ‘genuen’, *ziñu(b)en* ‘zenuen’, *giñuzki(y)en* ‘genituen’. 22) Partizipioetako *-i* bokalaren sinkopa. 23) Partizipio analogikoak: *izendu* ‘izan’, *yondu*, *oondu* & *eondu* ‘egon’, *jakindu*, *ibildu*, *bieldu* ‘bidali’, *itzuldu* ‘itzuli’. 24) Etorkizuna adierazteko *-en* aditz atzizkia. 25) Bigarren pertsona singularreko *y-* aditz morfema. 26) Iraganeko aditz sintetikoetan *-a-* erabiltzea: *nakien*, *zakien*... 27) “etorri” aditzaren era trinkoa ez, “eldu izan” aditza jokatzeko. 28) Ahaleko aditzen ordain “al izan” perifrasi erabiltzea. 29) Juntagailu hautakari bakarra *o(o)* ‘edo’ izatea. 30) Aditzen perifrasietan *-tia eman* (*jatia eman* ‘jatera eman’, *yatia eman* ‘edatera eman’) eta *utzi*, *lagundu* eta *jakin* + *-tzen* erabiltzea. 31) Kausazko perpausetan *beit-*, *-lakos* eta *zengati*... *-n* menderagailuak erabiltzea. 32) *al* partikula galdetzailea ez erabiltzea.

5. Labur zuhurrean eta 2005eko artikuluan egin bezala, Irañetako eta Arakilgo euskara Sakana erdialdeko mintzotik saihesten duten ezaugarri uga-

ri badirela erakutsiko dugu; batzuek iradokitzen digute Arakil ibarra eta Irañeta herria Nafarroa Garaiko erdiguneko Gulibar, Itza, Txulapain edo Atetz ibarrei begira ere bizi izan direla, eta beste batzuek Iruñerriko euskarari begira ere bazegoela, Iruñeak gizarte eta ekonomia aldetik garrantzia izan duela. Ikuspegi pansakanarra deusetan ere laguntzen ez duten ezaugarriak dira, Sakana erdialdeko herri gehienetan erabiltzen ez direlako: 1) **j*- > *x*- txistukari sabaiaurrekoa. 2) Hirugarren mailako *ore* ‘hura’ singularreko erakuslea. 3) Adina edo garaia adierazten duen *-zutu* atzizkia Irañetako *zarzutu* edo *gazte-zutu* hitzetan. 4) Hego-nafarreraz bezala, ahaleko iraganeko adizkietan *-ezagabeko* formak: esaterako, Irañetako *neuken* ‘nezakeen’, *zouken* & *zuken* ‘zezakeen’. 5) Hego-nafarreraz bezala, ohiko *-k*-ren ordain, hiketa maskulinoko *-t*- morfema. 6) Nor Nori Nork aditz sailean *-it-* pluralgilea. 7) Bigarren pertsona pluraleko *-zte-* (ohiko *-zue*) egiletasun eta datibo morfema. 8) Hirugarren pertsona pluraleko *-te* egiletasun eta datibo morfema. 9) “joan” aditzaren forma trinkoetan Nafarroa gehieneko sistema, ez Burundako edo Sakana erdialdeko sistemak. 10) Sakana erdialdeko herri batzuetan ez bezala, oraineko Nor Nork adizkietan aldaera *-u*-dunak. 11) “izan” aditzaren Nor sailean, hirugarren pertsona pluralean guztizko asimilazioa gibelerat: *dee* ‘dira’, *zeen* ‘ziren’. 12) “izan” aditzean *dan* ‘den’, *dala* ‘dela’ saila Burundan eta Sakana erdialdeko herri batzuetan ageri da; behin Arbizutik eskuin, Arakil guztian gaindi ekialderaino *den*, *dela* saila erabiltzen da.

6. Ondoko sei ezaugarriek dagokienez, Erdoziaren ikuspegiak bestelakoa dakargu: 1) Erdoziak *e-* bokalaren itxiera deitzen duen bilakabidean, era bateko baino gehiagoko fenomenoak dakuskigu guk: *iruzki* ‘eguzki’ edo *irui*, *idui* & *idugi* ‘eduki’ hitzetako bokal goratzea eta *itxe* ‘etxe’ adibidean gertatu dena, ez dira zaku berean sartzekoak; dena den, berak bateraturik dakarren atal honetan garrantzizkoena beste alderdi hau da: Sakana erdialdeko *yakusi* ‘erakutsi’ / *eakusi* & (*a*)*akusi* (Irañeta) edo Sakana erdialdeko *yosi* ‘erosi’ / *erosi* (Irañeta) aurkakotasunek, ez dute Irañetako mintzoa Sakana erdialdekora inguratzen. Burundako eta Sakana erdialdeko berrikuntza espezifikoki hori, mintzo hauei horren tankera berezia ematen diena, ez da Irañetakoa edo Arakilgoa. 2) Sakanako ikertzaileak “errotazismoa” deitzen duen *-rtz-* / *-st-* konsonante taldeen arteko lehiari dagokionez, Uhartetik eskuin *ortzegun*, *ortzillere*, *ortots* ageri direla adierazi behar da; ezaugarri honetan Sakana erdialdeko euskara eta Arakilgoa ez dira bateratzen, bereizten dira. 3) Ez dago egoera nahasirik Irañetan *larru*, *lasei* ‘lasai’, *naurri* ‘neurri’ eta *nazka* hitzak erabiltzean, horixe delako Nafarroa Garaiko erdigune zabalean dagoen errealitatea; erabilera honekiko guztiarekiko Irañeta eta Arakil geolinguistikoki koherenteak dira. Sakana erdialdeko *larru*, *lasei* & *lasai* ‘lasai’, *laurri* ‘neurri’ (*Erizkizundi Irukoitza*-k dakarrenez Uharteraino iristen dena) eta *lazka* ‘nazka’-rekiko da Irañetakoa “egoera nahasia” edo Burundako *narru* ‘larru’-rekiko, baina jokabide hori Sakanako erdigunean edo Burundan baizik ez da kanonikoa, Nafarroa Garaiko erdigune linguistikoari loturik dagoen Arakilen ez. 4) Sozietiboaren morfeman Irañeta eta Sakana erdialdea batera doazela esaten zaigu; egia da Irañetan *-ki* erabiltzen dela, baina bada *-kin* ere, eta ez da aise bertan erabilera hau berria ala zaharra den jakitea; pentsa liteke *-ki* arkaismoa dela erabilerarik zaharrena: *Erizkizundi*-ak *-ki* dakar, baina Gastesi XIX. mendeko idazleak *-ki* nahiz *-kin* dakartza; guk Irañeta ondoko Ihabarren *-kin* bildu genuen 1983an eta baita *EAEL*-k ere. 5) Ablatiboko *-ti* morfema Sakana

erdialdean egotea eta Irañetan *-ti* & *-tik* dimorfismoa egotea, ez dugu uste egoera nahasia denik; besterik gabe, erdigunetik etorri den berrikuntza bat Irañetaraino iritsi dela adierazten digu, gordetzaileago dirauen Sakana erdialdera ez dela iritsi. 6) Etxarri-Aranatzen eta Ergoienean Nor Nori Nork aditz sailean **eradun*-etik eratorri adizkiak eta Arbizutik ekialdera *-i*-errokoak ego-teak, ez du laguntzen Sakana erdialdea eta Irañeta batera doazelako ikuspe-gia; Etxarri-Aranatz eta Ergoiena gordetzaileek, Arbizu, Lakuntza, Irañeta le-rrotik eta Arakildik bereiz diraute.

7. Hurrengo ezaugarriotan gauzak ez daude guztiz garbi eta ez dute er-dizkako interpretazioa baizik eskaintzen: 1) Badirudi Sakana erdialdean in-darrean dauden *-ia* > *-iye* eta *-ua* > *-ube* epentesien sistematikotasunak inda-rra galdu duela Irañetan. *Erizkizundi*-ko erantzunetan ageri den *-ube* berri-kuntza ia ez da egun ageri Irañetan, Uharteko bilakabidetzat jotzen du ber-tako hitzun batek; bestalde, *-iye* ere ez da jokabide sistematikoa. Arakilen ez dago *-ube*-ren arrastorik eta *-iye* ere ez da erabiltzen, Urritzolako adibide asis-tematiko batzuk izan ezik. 2) *b / p / f* kontsonanteen txandaketak. 3) *d / r* kontsonanteen txandaketak. 4) Ugaritasuna adierazten duen *-dei* atzizki era-torle eta itxuraz berria, Burundako Altsasun (*-dei* > *-dai* aldaketa jasanik), Sa-kana erdialdean eta Uharte-Irañetetan ageri da, ziur aski oinarria *-degi* due-na: Erdoziaren Sakana erdialdeko hiztegian *arizdei*, *fagadei*, *intxordei*, *paotei*, *sa(a)rdei*, *sasidei* edo *txipodei* adibideak ditugu. Irañetan *saardei* eta *sasidei* hitzak bildu ditugu guk, baina baita *arizdi*, *faadi* eta *lardi* ere, eta baliteke *arizdei* era ere bertakoa izatea; polimorfismoa dugu Irañetan, muga dela di-rudi. Toponimia zaharrari begiratzen badiogu, egoera zaharra *-di* dela dirudi, hala Irañetan (*Iltzerbeko txipodié*, *Leatxakankazkardié*, *Lezkádi*) nola Sakana erdialdean, alderdi honetan ere *-di*-dunak baitira adibide ia guztiak, baina badira berriagoak diruditen ale batzuk: *Sagárdeyá* Arruazun, *Sagastia*-rekin batera, *Intxordegie* Lakuntzan, *Koostidei* eta *Tufedeia* Arbizun. Toponimian bederen, Arakilen, Gulibarren eta Itza zendean ez dago *-di* baizik: *Lezkadi* Murginduetan, *Elordi* Ihabarren, *Astigardi* Hiriberrin, *Lizerdi* Satrustegin, *Ilarradia* Etxeberrin, *Artadi* Izurdiagan, *Sagardi* Zian (Gulibar), *Txarakadia* Eritzen (Itza), *Bikudia* Aldaban (Itza), *Gilledi* Saratsan (Itza)... cf. Nafarroa-ko Gobernuaren bitartez egin diren toponimo bildumak (1993 eta 1993b). Andres Iñigok (*-d*)*egi* erakoak bildu ditu Iturenen: *Ariztegi*, *Bagadegi*, *Gaz-taindegi* (1996: 220, 234, 261). Larraunen ere ageri da *-dei*: Etxarrin *Illardei* eta *Zugaztei*, Oderitzen *Elordeita* (*Elordegi* zaharragotik) eta Gorritin *Elorde-gi*; besterik da *-dei*-ren sakoneko egituran zer dagoen ziurtasunez jakitea (Pa-txi Salaberri Zaratiegik ahoz adierazia). 5) Interjekzio berberak erabiltzen omen dira Sakanako esparru guztian: *ai au pena ni!*, *ai ene ni!*, *iyun* & *iñun* *dienak!*, *bierrik!*, *sikia!*, *barratu artio!* ‘barreiatu arte!’, *axe!*, *gexkixe(i)!* ‘gaizki-xe!’. Gai honi dagokionez ez dugu Irañetako edo Arakilgo berririk.

8. Erdoziak bere erantzunean dioenez (2006), soil-soilik *ebatsi* (Irañeta) / *ostu* (Lakuntza) hitzen, nahiz *martutse* (Irañeta) / *masuste* (Lakuntza) eta *erte* / *arte* (Lakuntza) aldaeren aurkakotasunean oinarriturik, guk erabaki omen dugu lexikoaren arloan “hizkera ezberdinak direla Sakana erdialdekoa eta Ira-ñetako”; guk dakigula ez dugu honelakorik idatzi. Etxarri-Aranatz eta Arbi-zuren artean, Lizarraga eta Dorraoren artean nahiz Lakuntza eta Arruazuren artean, hein horretako berezitasunak berak ere aurki litzakeela dio. Parodia horren bidez estalgunean uzten du gure lanean (2005: 274-276 or.) hitz eta

aldaera anitzez gehiagotan ageri dela Lakuntzatik Irañetara dagoen aldea. Ez da atzendu behar gure lanean ez dela ukatu Sakana erdialdeko eta Irañetako mintzoen artean lexikoan lotura badagoela, baina aldea ere bada eta alde horren berri ematen digute 274-276 bitarteko gure adibideek².

Aldea, Nafarroa Garaiko erdiguneko kutsu nabarmena duten hitz edo aldaera ugari, Sakana erdialdean ageri ez direnak, Arakil alderdian eta kasu batzuetan baita Irañetan ere agertzeak erakusten du. Iazko saioko adibideetarik bakan zenbait har dezakegu: Lakuntzako *goizalde* eta *amapunteko* edo *aittapunteko* vs. Irañeta eta Murginduetako *argiaste*, *aitegutxe* eta *ama(g)utxe*, edo Lakuntzako *itxi*, *eltzur* eta *aixun* ‘asun’ aldaerak vs. Irañeta eta Murginduetako *ertsi*, *eltzur* & *altzur* eta *auxiñ*. Lehen hitza, *argiaste*, Euskal Herriko ekialderaino iristen da; *aitegutxe* eta *ama(g)utxe*, horrela nahiz beste aldaera zenbaitekin, nagusi dira Nafarroa Garaian eta Aezkoaraino bederik iristen dira. Aldaeretan, *ertsi* ere ekialderaino iristen da eta *eltzur* / *altzur* aldaera *-l-*duinak Nafarroa Garaian biziki hedaturik daude: Esteribarren, Anuen, Ultzaman, Imotzen, Basaburu Handian, Larraungo Etxarrin eta Eratsunen bederen bada *-l-* hori. Bestalde, *auxin* & *ausin* aldaera, Anuen, Ultzaman, Aetzzen, Imotzen, Basaburu Handian eta Larraunen ageri zaigu. Eta Irañetatik eskuin, Murginduetan ere badira muga garrantzizkoak: Sakana erdialdean eta Irañetan *bildur* dena, Murginduetan eta hortik eskuin *beldur* da, Imotzen, Ultzaman, Anuen, Bidasoaldean, Goizuetan, Baztanen edo hego-nafarreran bezala. Lakuntzan *irigi* eta Irañetan *idei* dena, *ideki* da Murginduetan.

Goiko adibideak erakusgarri batzuk baizik ez dira, sail luzeagoa ere ekar liteke; gehiago nahi duenak jo dezala 2005eko gure saiora. Honelako munta geolinguistikoa duten eten lexikoak Etxarri-Aranatzen eta Arbizuren artean, Lizarragaren eta Dorraoren artean edo Lakuntzaren eta Arruazuren artean bilatzera menturatzen denak, lanak izanen ditu aurkitzeko. Sakana erdialdera mendebaleetik eta Gipuzkoatik hitz gehiago iritsi dira Arakilera baino; bestalde, Nafarroako ohiko itemtzat jotzen ditugun hitz gehiago iritsi dira Arakilera Sakana erdialdera baino; besterik da hori ikusi edo aitortu nahi ez izatea.

Nahi hainbat parodia egin litezke, baina Sakana erdialdera batetik eta Arakil ibarrera bestetik, lexikoaren alderdian ere menderen mende historian zehar hizkuntzazko grabitazio-ingar desberdinak iritsi direla ezin saihestu den errealitatea da. Berriz diogu horrek ez duela ezinbestean adierazten, Sakana erdialdeak eta Irañetak edo Sakana erdialdeak eta Arakilek alderdi lexikoari dagokionez loturarik ez dutenik.

ONDORIOAK

1. Hartara, bada Irañetako eta Arakilgo euskara Nafarroa Garaiko erdiguneko hizkerari bederen loturik daukan ezaugarri sorta sistematiko bat, Sakana erdialdeko mintzotik bereizten dena eta kasu batzuetan Nafarroako ekialderat ere hedadura zabala duena. Hauetarik gehienak berrikuntzak dira

² Badakigu Irañetako *ata* ‘atera’ Burundan eta Sakana erdialdean ere erabiltzen dela: mendebaleetik datorren eraginari Irañetako *atra* aldaera nafarrak lehia egin diola adierazteko erabili genuen adibidea, Irañetan bi aldaerak erabiltzen direla adierazteko, ez *ata* Arakil aldekotzat jotzen genuelako; gure asmoa ulertuko zelakoan geunden.

eta garrantzia du honek ere: *x- < *j-* bilakabide fonikoa; ablatiboko *-tik* morfema; hikako adizkietako *-t-* morfema; *-it-* pluralgilea; hirugarren pertsonako *-te* morfema; *daye* ‘doa’ erako adizkiak; *dee* ‘dira’ & *zeen* ‘ziren’ era berriak eta azkenik, maiztasun handiagoko aferesi eta sinkopak. Ekialderaino iristen ez diren *ore* ‘hura’ erakusleak eta bigarren pertsona pluraleko *-zte* morfemak ere berriak dirudite³.

2. Berrikuntza hauek guztiak ez dira Sakana erdialdekoak, eskualde honetan beste era batzuk ageri dira: batzuk mendebalekoak, beste batzuk Euskal Herriko erdigunekoak, Gipuzkoan gaindi iritsiak, eta beste batzuk Burundako edo Sakana erdialdeko bereko ezaugarriak; hondarreko hauen artean fonologiako ezaugarri batzuk aipa ditzakegu adibidetzat: *aungi* ‘ongi’, *auntzi* ‘ontzi’, *auspel* ‘ospel’ diptongoak, *ai > ei* aldaketaren maiztasun handia (*bei* ‘bai’, *jei* ‘jai’, *lasei* ‘lasai’), *fake* ‘bake’, *yaman* ‘eraman’, *yan* ‘edan’, *laurri* ‘neurri’, *lazka* ‘nazka’, *udse* ‘ura’ aldaerak... Aditzaren morfologian **eradun* erroitik eratorri adizkiak aipa daitezke eta sintaxian *nolabeitt* partikula azaltzailea. Aurkeztu ditugun ezaugarri hauek guztiak ez dira Nafarroa Garaiko erdigunekoak ezta ekialdekoak ere.

3. Erdoziak garrantzi handia ematen dio ezaugarrien kopuruak ateratzeari. Hondarreko ondorioztat ere jo liteke hori, lanaren *output* mekanikotzat; ez da hutsaren hurrengoa bideko argudiobideez eta erabakien nondik norakoez arduratzea, metodologiari dagozkion alderdiez kezkatzea, berrikuntzak non ageri diren, ezaugarri zaharrak non gordetzen diren eta trantsizioen egitura geolinguistikoa nola irudikatzen den pentsatzea. Orogen buruan, ezaugarriei so egiteko erak garrantzi handia du dialektologian. Aitortu behar dugu ederki jabetzen dela Erdozia, dialektologian erabakiak hartzeko erabiltzen diren ezaugarriek, hizkuntzaren baitako sakontasuna eta sistematikotasuna eduki behar dutela.

4. Arakilgo euskararen mugak Aizkorben, Errotzen, Oskian, Uhartena ala non dauden jakitea ere garrantzizkotzat jotzen du Sakanako euskararen ikertzaileak. Bonapartek euskalkiei ezarri nahi zizkien muga zurrun eta iragazkaitzez Menendez Pidalek egin salaketa aintzat hartzekoa da, Aita Jose Ignacio Aranak printzeari 1877an galdegin zionaren ildo beretik datorrena (Altuna 1985: 314-5):

Quisiera saber a mi vez de S.A., supuesto ya un mapa que abraza al uno y otro lado de los Pyrneos, solo y todo el país donde se habla poco o mucho el bascuence, y repartido ese mapa lingüístico en tres secciones que se quiere correspondan exacta o muy aproximadamente a los tres muy principales dialectos que se pueden llamar oriental, central y occidental, por qué montes, valles y pueblos haría pasar la línea divisoria entre el dialecto oriental y central y la otra línea entre el central y occidental?

Egia aitortu behar badugu, Irañeta trantsiziogunetzat hartzeak eta aldaketan lehen balizko gunetzat Uharte hartzeak ez dakar kalterik batere, argi ikusten baita eskuin Arakil ibarreko ezaugarriak Nafarroa Garaiko erdiguneari begira ditugula eta hego-nafarrerarekiko lotura ere egiten dela Arakilen; orain zail da Arakilgo euskara non bukatzen ote zen jakitea, horretarako datu bakan dugu, Itza zendeako eta Gulibarko mintzoak arras guti ezagutzen

³ Berrikuntza ez, hautua litzateke *-zutu* atzizkia, eta *-rtz-* kontsonante taldea zahartzat jotzen da.

ditugu. Halaz ere, dakigun pixka horri Txulapaingo, Atezko, Odietako eta Ezkabarteko euskaraz dugun ezagutza eransten baldin badiogu, aski dugu ohartzeko Irañetatik eskuin eta Arakil ibarrean gaindi doazen era batzuk aipatu ditugun ibar horietan ere ageri direla, hain zuzen ere Sakana erdialdean ezezagunak diren ezaugarri batzuk.

5. Izendatzeko eraz ere baditu bere koaitak Erdoziak: “Sakana erdialdea” izenaren berritasuna egozten digu guri. Sakana orokorreakiko hain baita nabarmena eta guztiek onetsia Burundaren hizkuntza-nortasuna alderdi batetik, eta bestetik, Bonapartek, Irizar zenak eta guk bederen, Arakilen nortasun dialektikoa aitortzen dugunez, bien erdian hizkuntzaren aldetik errealitatea duen eta bereizgarri zenbait dituen entitate bat badagoela pentsatzen dugu, Ergoieneko berezitasunak aitorturik ere. Erdoziak berak bere doktoretza tesian aztertu duenean, “Sakana erdialdeko euskara” izendatu du errealitate hori, eta Arruazuko euskaltzain Jose Mari Satrustegi zenak ere halaxe izendatu zuen: “baina txikitatik datorkigu hurbileko erreferentzia hori Sakana erdialdeko biztanleei” (1999: 343). Guk uste, “Sakana erdialdea” izen egokia den ala ez den erabakitzea, sakanarren beren esku uztea izanen den egokiena; garrantzikoagoa da gure ustez hizkuntza-datuen gibelean zer errealitate dagoen arretaz begiratzea.

6. Sakana erdialdetik Burundara dagoen hizkuntza-jauzia handia da, Sakana erdialdetik eskuin Arakil alderdira dagoena baino handiagoa, baina Arakilgo euskarara eta Sakana erdialdekora historikoki iritsi diren hizkuntzazko grabitazio-indarrak ez dira berdinak: hori ezin ukatua da eta datuek berek argi erakusten dute. Biak egia paraleloak dira. Bestalde, nabarmena da Sakana erdialdeko Irañetako euskarara lotura sakona dagoela, baina Sakana hizkuntzaren aldetik heterogeneoa dela bezain egia nabarmena, edo Sakana erdialdeko euskarak ere bere barne desberdintasunak dituela bezain egia: Ergoieneko adibidea datorkigu gogora. Alderdi bateko nahiz besteko egiak gure dialektologia-ikuspegian egoki txertatzean dago gako; ez da xuxenbidea ezaugarri batzuen garrantzia hanpatzea eta beste batzuen garrantzia ukatzea; halaber, ez da aise onesten ahal, geografia-hedadura bera duten eta beraz adiera dialektologiko sakona duten berrikuntza sistematiko ugariri ezikusia-rena egitea.

BIBLIOGRAFIA

- ALTUNA, P., 1985, “Bonapartek eta Aita Aranak elkarri egin kartak”, *FLV*, 46, 305-341.
- APALAUZA, A., 2006, *Imozko hizkeraren azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernuak diruz lagundu Euskal Herriko Unibertsitatearen ikerketa proiektua, (GN 00114.130-16262/2004), 164 or.
- ARTOLA, K., 1992, “Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiakera)”, *FLV*, 60, 187-227.
- CAMINO, I., 2004, “Irizpide metodologikoak egungo Euskal Dialektologian”, *Euskera*, 49/1, 67-102.
- , 2005, “Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna”, *FLV*, 99, 265-286.
- ERDOZIA, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Nafarroako Gobernu, Iruñea.
- , 2004, “Irañetako euskara”, *FLV*, 97, 487-517.
- , 2004b, *Sakanako hiztegi dialektologikoa*, Nafarroako Gobernu & Euskaltzaindia, Iruñea & Bilbo.
- , 2005, “Sakanerak”, *FLV*, 98, 59-77.

- , 2006, “Sakaneren gainean egindako azterketak argitze aldera”, *FLV*, 101.
- ETXAIDE, A. M., 1989, *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- IBARRA, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- IÑIGO, A., 1996, *Toponomástica histórica del valle de Santesteban de Lerín (regata del Ezkurra)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- IRIZAR, P., 1981 I eta II, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Gipuzkoako Auzkerri Kutxa Probintziala, Donostia.
- NAFARROAKO GOBERNUA, 1993, *Nafarroako toponimia eta mapagintza: Etxarri Aranatz, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uharte Arakil, Irañeta, Aralar*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- , 1993b, *Nafarroako toponimia eta mapagintza: Arakil, Irurtzun, Iza*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- SALABERRI ZARATIEGI, P., 1998, “Arabako mugako nafar hizkeren inguruan”, in I. CAMINO (arg.), *Nafarroako hizkerak*, UEU, Bilbo, 49-87.
- , 2004, “Artatzako euskal testua. Transkripzioa eta hizkuntza azterketa”, *FLV*, 97, 537-554.
- SATRUSTEGI, J. M., 1999, “Arakil aldeko euskara”, *FLV*, 81, 343-358.
- ZUAZO, K., 1994, “Burundako hizkera”, in R. GÓMEZ & J. A. LAKARRA (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua, ASJU-ren gehigarriak 28*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 297-364.

LABURPENEA

Saio llabur honetan, Jose Luis Erdoziak guk Irañetako eta Arakilgo euskararen gainean aldizkari honexetako 99. zenbakian idatzi genuen artikuluari 101. zenbaki honetan egin dizkion ohar batzuei erantzun nahi izan diegu. Funtsean metodologiako gaiez dihardugu, dialektologiaren jardunean sortu ohi diren ponderazio-arazo zenbaitez argitasun zertxobait eskaini nahirik.

RESUMEN

Estas breves líneas tratan de responder a algunas apostillas que en este mismo número 101 de *Fontes* hace Jose Luis Erdozia a raíz de un artículo nuestro publicado en el número 99 de esta revista y que versa acerca del habla de Irañeta y del valle de Araquil. No pretendemos sino aclarar algunos aspectos relacionados con la metodología dialectológica y con el problema de la ponderación de los datos utilizados en el análisis.

RÉSUMÉ

Ces quelques lignes essaient de répondre à certaines notes, parues dans ce numéro 101 de *Fontes*, écrites par Jose Luis Erdozia à la suite de l'un de nos articles publié dans le numéro 99 de cette revue et qui porte sur la langue d'Irañeta et de la vallée d'Araquil. Nous voulons simplement éclaircir certains aspects relatifs à la méthodologie dialectologique et à la pondération des renseignements utilisés dans l'analyse.

ABSTRACT

This short article serves as a response to a few comments made by Jose Luis Erdozia in his article published in this issue of *Fontes*, in turn responding to our article published in issue 99 about speech from Irañeta and the Valley of Araquil. The aim is to clarify a few aspects concerning the dialectological methodology and the problem of weighing up the data used in the analysis.